

LAGINAK LAGATZEKO ESKAERAK EBALUATZEKO BALDINTZAK

mIBEra kopia bat bidali beharko da formatu elektronikoa, honako dokumentazio honekin:

- E-mIBE eskabide-eredua (02 IOE 26 eranskina, laginak lagatzeko eskabide-eredua)
- Lagina lagatzen zaion zentroarekin lagatzeko akordioa. Laginak erakunde bati lagatzen zaizkion lehen aldian bidaliko da, eta ondoren, dokumentuan aldaketarik badago.
- Ikertzaileak Biobankuari egindako lagin-eskaeraren kopia, eskaera hori argudiatuz, batez ere lagin-mota bat ez datorrenean memoriaren helburuetan ezarritakoarekin; kasu horretan, aldaketari baimena eman behar dio proiektua ebaluatu zuen batzordeak.
- Proiektuari dagokion Ikerketako Etika Batzordearen aldeko irizpena.
 - Proiektuaren aldeko irizpena lortu ez bada, gutxienez argudiatu beharko da proiektu hori ebaluazio-prozesuan dagoela. Laginen lagapenaren ebaluazio-txostena ez da sortuko dagokion IBEko proiektuaren aldeko txostena lortu arte.
 - Proiektuaren ebaluazio-batzordea E-mIBE bada, dagokion dokumentazioa aurkeztu behar da (05 IOE03 IKERKETA-PROIEKTUAK EBALUATZEKO BALDINTZAK)
- Proiektu horretan planteatutako aldaketen baimenak, hala badagokio.
- E-mIBErekin adostutako informazio-orria eta baimen informatua erabiltzeko konpromisoa. Eredu hori erabili ez bada, erabilitakoa aurkeztu behar da, ahal den neurrian, bertsio eta data batekin identifikatuta.
- Ikerketaren emaitzen berri emateko konpromisoa
- Lotutako memoria zientifikoa

Laginen lagapena ebaluatzeko eskaera egin aurretik edo laginen lagapena aldatu aurretik zuzendu beharreko ohiko galderak